

## memoriapaper(ak)

DOCUMENTOS DE TRABAJO  
DEL FONDO DOCUMENTAL DE LA MEMORIA HISTÓRICA EN NAVARRA

NAFARROAKO OROIMEN HISTORIKOARI BURUZKO FONDO DOKUMENTALAREN LAN-  
GAIK

Nº 12. Zbk

<http://memoria-oroimena.unavarra.es/es/documentos/>

IRUÑEKO ESPETXEKO PRESO POLITIKOAK 1940AN:  
LEHEN HURBILKETA KUANTITATIBOA

**Autoría / Egileak:** Lisabe Velasco Zozaya

**Fecha de publicación / Argitalpen data:** Enero 2023 Urtarrila



ISSN 2444-5932

**Memoriaper(ak)**

- Documentos de Trabajo del Fondo Documental de la Memoria Histórica en Navarra
- Nafarroako Oroimen Historikoari buruzko Fondo Dokumentalare Langaiak
- Working papers of the Documentary Archive of Historical Memory in Navarre

**Edita / Editorea:**

- Universidad Pública de Navarra / Nafarroako Unibertsitate Publikoa

**Consejo Editorial / Argitalpen Batzordea:**

- Emilio Majuelo Gil
- Fernando Mendiola Gonzalo
- Nerea Perez Ibarrola
- Gemma Piérola Narvarte

**Acceso / Sarbidea:**

- <https://academica-e.unavarra.es/handle/2454/44557>
- <https://memoria-oroimena.unavarra.es/informes>
- <https://dialnet.unirioja.es/servlet/revista?codigo=26564>

**Licencia / Lizenzia**

- Attribution-NonCommercial-NoDerivatives 4.0 International(CC BY-NC-ND 4.0).  
<https://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/>

**ISSN:**

- 2444-5932

El Consejo Editorial no se identifica necesariamente todas las opiniones publicadas en esta serie de documentos de trabajo.  
Batzorde Editorialak ez du ezinbestean bat egiten langai hauetan argitaratzen diren iritzi guztiekin.

## **Iruñeko espetxeko preso politikoak 1940an: lehen hurbilketa kuantitatiboa**

### **Laburpena:**

Erregimen frankistak gerra garaian eta gerraostean biztanleria zibila menderatzeko helburuarekin gauzatutako errepresio modu ugarien artean, gatibualdiak garrantzi handiko lekua hartzen du, bai haren eragina jasan zuten pertsonen kopuruagatik, bai erregimenaren alderdi ideologikoekin lotura zuzena izateagatik. Nafarroan ere, gerra-fronterik ez egon arren, fenomeno hau aurki dezakegu, eta bere azterketa funtsezkoa da errepresio frankista bere alderdi guztietan ezagutzeko, baita errepresio horrek biztanleria osoan izan zituen ondorioak ulertzeko ere. Txosten honen bidez, biztanleria penalaren azterketa bat egin nahi da, une jakin batean eta espetxe espezifiko batean arreta jarritz: Iruñeko Espetxe Probintziala 1940 urtean. Udal erroldako informazio berreskuratuta eta datu-basera irauli ondoren, jasotako datuen azterketa bat egin da, iturri nagusian zein FDMHN-k emandako beste barietate batzuetan oinarrituta, horri esker biztanleria penala sakontasun handiagoarekin ulertu ahal izateko.

Hitz gakoak: espetxe probintziala/ errepresio frankista/ gatibutasuna/ biztanleria penala/ 1940

### **Resumen:**

Entre las muchas formas de represión ejercidas por el régimen franquista con el objetivo de someter a la población civil durante y tras la guerra, el cautiverio ocupa un puesto de gran importancia tanto por el volumen de personas que se vieron afectadas por ello como por su vinculación directa con los aspectos ideológicos del régimen. En Navarra, a pesar de no haber frente de guerra, también encontramos este fenómeno cuyo estudio es esencial para comprender la represión franquista en todas sus facetas y las consecuencias que esta tuvo en el total de la población. A través de este informe se pretende realizar el análisis de la población penal en un momento específico y en una prisión específica, centrándose en los presos y presas políticas: la Prisión Provincial de Pamplona en 1940. Tras recuperar del padrón municipal la información que ya ha sido volcada a la base de datos, se ha realizado un análisis de los datos recogidos, basándose tanto en la fuente principal como en otras variables proporcionadas por el Fondo que han permitido una comprensión más amplia de la población penal.

Palabras clave: prisión provincial / represión franquista/ cautiverio/ población penal/ 1940

## **Iruñeko espetxeko preso politikoak 1940an: lehen hurbilketa kuantitatiboa**

### **1. SARRERA**

Txosten honen bitartez, bi prozesu ezberdinetan egindako lanaren emaitzak batu nahi dira: alde batetik, Bigarren Hezkuntzako Irakasletzako masterrean egindako Master Amaierako Lanaren funtsa, hau da, Iruñean egondako gatibualdi zentroen analisia, bereziki Espetxe Probintzian zentratzen dena. Bestalde, Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin egindako lankidetzaren bekaren ikerketak emandako emaitzak. Ikerketa honek Iruñeko Udal Artxibategiko 1940ko erroldako datuak ditu abiapuntu eta, haiek erabilia, Iruñeko Espetxe Probintzialeko biztanleria penalaren analisi kuantitatibo bat gauzatu izan dugu.

Beraz, bi lan hauetan jorratutako informazioa erabili da hurrengo artikulua konposatzeko. Honen bidez, 1940. urtean Iruñeko Espetxe Probintzialeko eta, hortaz, hiriko espetxeko biztanleria penalaren ikuspegi orokor bat izango dugu urte zehatz horretan. Ikerketa honen emaitzak, hala ere, denbora-lerro baten barnean ulertu beharko litzateke, serie luze baten parte baita eta hemen aurkitutako joerak hobeto ulertzeko beharrezkoa izango litzateke testuinguru osoa aztertzea.

Artikuluaren egiturari dagokionez, hasteko, lan hau gauzatzeko erabilitako iturrien iruzkin kritiko bat egingo dugu. Lehen mailako iturri bat izan da ikerketaren oinarri, zehazki 1940 urteko Iruñeko udal errolda, eta lehen mailako iturriek aurkeztu ohi dituzten erronkak aurkitu ditugu erroldaren irakurketan eta interpretazioan. Erronka hauek gainditzea funtsezkoa izan da ikerketa-prozesuan, eta, era batera edo bestera, emaitzei eragin die.

Ondoren, biztanleria penalaren analisi kuantitatiboarekin hasi baino lehen, bi alderdi aztertuko ditugu gatibualdiaren testuinguru historiko eta geografikoa ulertzeko. Alde batetik, espetxeak eta gatibualdiak berak frankismoan izan-

dako papera aztertuko dugu, izan ere, aipatzekoa da honek izandako garrantzia, bai arlo sozial eta politikoa, bai frankismoko ideologiaren baitan. Segidan, Iruñeko Espetxe Probintzialaren inguruan arituko gara, gatibu-aldizketa honen bilakaera historikoa aztertuz, baita bere biztanleriaren bilakaera ere.

Azkenik, lankidetzaren zehar egindako ikerketan bildutako datuen bidez, 1940ko urteko biztanleria penalaren analisi sakonago bat egingo dugu, parametro ezberdinak erabiliz eta hauek konbinatuz, Iruñeko Espetxe Probintzialeko momentu zehatz baten irudi bat lortzeko, ahalik eta konplexutasun handienarekin. Aurrerago azalduko den arren, aipatu beharrekoa da biztanleria penal horren zati zehatz batean zentratuko dela ikerketa, hau da, preso politikoetan. "Preso politiko" erabiltzean, FDMHN-ean balidatuta dauden presoek egiten ditugu erreferentzia, hurrengo ataletan sakonago azalduko den bezala.

Presoen banaketa hau FDMHN-aren metodologiarekin dago lotua eta, hortaz, ikerketa honen oinarri metodologikoarekin ere. FDMHN-ean bildutako kasuak balidatuta edo balidatu gabe egon ahal dira. Balidatuta dauden kasuak bi ezaugarri nagusi dituzte: alde batetik, FDMHN-ren bilatzailean ageri dira esku-ragarri, edonork bilatu ahal dituelarik eta, beste aldetik, balidatuta egoteak esan nahi du pertsona horren errepresioa nolabait dokumentatua dagoela. Hala ere, horrek ez du esan nahi balidatu gabe dauden kasu guztietan errepresio ez egotea, baizik eta, momentuz, ez dagoela errepresio hori frogatzeko modurik edo ez dagoela informazio nahikorik ziurtatzeko. Kasu hauek FDMHN-ean gelditzen dira gordeta, baina soilik administratzaileentzat ikusgarri.

FDMHN-aren metodologia zehazten duen oinarrizko dokumentua *Gertakari errepresiboak kuantifikatzea: Nafarroako Memoria Historikoaren Dokumentu Funtzaren azalpena eta erronkak* (Majuelo Gil et al., 2019) da, ikerketa honen oinarrizko bibliografiaren artean aurki dezakeguna.

## **2. ERABILITAKO ITURRIAK**

Aipatu den moduan, 1940ko errolda izan da ikerketan erabilitako iturri nagusia, baita ikerketa beraren abiapuntua ere. Hala ere, ikerketak aurrera egin ahala, beste iturri batzuetara jo dugu, informazioa kontrastatzeko helburuarekin, nagusiki. Hau, neurri handi batean, iturriak aurkeztutako arazo eta erronkei aurre egiteko modua izan da. Izan ere, erroldan, lehen mailako iturria den heinean, iturri mota honek izan ohi dituen oztopoak topatu egin ditugu. Erroldarekin lan egiten hastean konpondu behar izan genuen lehena, iturriaren aspektu materialarekin lotuta dago baina, edukiei begira, arazorik nabarmenena informazio galera izan da. Izan ere, presoetako buruzko informazio pertsonala biltzen zuen arren, erroldak kanpo uzten zuen presoek karguak edo espetxean egoteko arrazoa, funtsezkoa den informazioa datu-basean balidatu ahal izateko.

Errolda, gehien bat eskuz idatzitako iturri bat da. Hortaz, ikerketan iturri hau erabiltzean, giza-faktorea hartu behar da kontuan, hau da, iturri guztietan egon daitezkeen akatsez gain, errolda bete zuen pertsona edo pertsonen akats eta berezitasunak aurkituko ditugulako. Kasu honetan, bi esku ezberdin ikusi ahal ditugu, argi eta garbi desberdintzen direnak. Honek esan nahi du, bi kaligrafia aurkituko ditugula, bai letra bai zenbakietan islatuko dena, baita hitzak eta toponimoak laburtzeko moduan ere. Azken hauek, abizenekin batera, izan dira irakurtzen zailenak. Azken batean, estatuko hiri eta herri guztien izenak jakitea ezinezkoa da, bereziki herri txikiekin, eta behin baino gehiagotan gertatu izan da izena gaizki idatzia egotea. Berdin abizenekin. Horretarako oso baliagarriak izan dira bestelako iturriak.

Erroldak zeukan beste arazo bat, aurrekoarekin lotutakoa, presoek lanbideen ingurukoa da, zehazki hauen sailkapena. Arazo edo erronka honen jatorria lanbideen aniztasunean eta iturrien araberrako lanbideen izendapenaren uniformetasun ezan dago. Hau da, zaila egiten da lanbideen sailkapen bakar eta uniforme bat egitea, bereziki Fondoak darabilen informazio kopuruagatik eta, hortaz, ikerketaren emaitzak aztertzean, zailtasun berdina hau aurkituko dugu.

Behin eroldako datu guztiak bilduta, beste iturriekin konparatzea izan zen hurrengo pausua, horri esker kasuen zati bat balidatu ahal izan baitzen. Garrantzitsuenak, nola ez, Nafarroako Oroimen Historikoari buruzko Fondo Dokumentala izan da, lehentasuna baitzuen jakitea eroldan bildutako zenbat izen ageriziren jada fondoan. Horrez gain, beste hainbat iturri erabili izan dira, hala nola *ihf.world*, biltzen duen izen kopuruagatik; Oroibidea (<https://oroibidea.es/>), Nafarroako bilatzaile espezifikoa; eta *Entre rejas. Diccionario biográfico Fuerte de San Cristóbal / Ezkaba. Navarra, 1934-1945* (Herrero Hernan, 2020). Honek, egon litezkeen arazoei irtenbidea emateaz gain, Fondo Dokumentalean erregistratuta ez zeuden hainbat pertsonen izenak aurkitzen lagundu zuen, beste datu-baseetan agertzen ziren heinean, espetxeratzeko arrazoiak politikoak zirela egiazta genezakeelako. Hori bera baitzen iturri nagusiak aurkezten zuen arazoetako beste bat: informazio falta.

Alde batetik, Fondo Dokumentalean sartuta zeuden pertsonen inguruko datu asko, eta oso erabilgarriak, eman zituen eroldak. Hala nola, izena eta abizenaz gain, jaiotza urtea, adina, sexua, egoera zibila, jaioterria eta bizilekua, probintzia, lanbidea eta irakurtzen eta idazten zekiten edo ez. Aipatzekoa da, nolatan ere, jaioterria eta bizilekuaren kasuan, bietan berdina jartzen zuela. Horretaz, ezin dugu jakin horrela zen edo iturriaren egilearekin lotutako beste arazo bat den. Informazio guzti hau, izugarri erabilgarria den arren, berebiziko garrantzia duen alderdi bat uzten du kanpo: presoak espetxeratzeko arrazoia. Izan ere, presoek karguak jakin gabe, ezin dugu bermatu preso politikoak zirenik. Preso arruntak izan litezke, besterik gabe, eta ezin dira Fondo Dokumentaleko datu basean balidatu. Horregatik, beste iturri batzuekin konparatzea funtsezkoa da ikerketa osatu ahal izateko.

Erroldan, osotara, 815 izen agertzen ziren eta lehen bilaketa batean, FDMHN-ren webgunean egindakoa, 298 izen aurkitu genituen jada datu basean eta publikoki ikusgarri zeudenak. Baina, hala ere, horrek ez du esan nahi gainerako 517 kasuak inolako errepresio politikoarekin lotuta ez daudenik edota jada basean bertan ez daudenik, izan ere, datu basean dauden izen guztiak balidatuak edo balidatu gabe egon ahal dira, eta balidatu gabe dauden izenak ez

dira FDMHN-ren bilatzailean agertzen, datu basean egon arren. Izen hauek soilik basearen administratzaileek ikusi ahal dituzte eta, gehienetan, izenak ez dira balidatzen ez dagoelako informazio nahiko ziurtatzeko pertsona hori errepresaliatua izan zenik. Eta hau bera gertatu zen ikerketan zehar: lehen bilaketa batean “berriak” bezala sailkatutako kasu asko (hau da, FDMHN-ren bilatzaile publikoan agertzen ez zirenak) datu basean zeuden jada. Edonola ere, denbora galtzea izan beharrean, lehen bilaketa horrek balio izan zuen balidatuta agertzen ziren kasuak eta balidatu gabe zeudenak bereizteko, eta, azken horien kasuan, haien fitxak lehen ezagutzen ez ziren datu gehiagorekin osatzen lagundu zuen.

Nolanahi ere, 1940ko errola oso iturri erabilgarria izan da, behin aurretik aipatutako arazoei konponbidea aurkitu ondoren. Egiaztatu ahal izan dugu errolan agertzen diren izen gehienak (815tik 578) nolabaiteko errepresioarekin lotuta daudela, eta espetxeratuak izateko arrazoia politikoa izan zela, hau da, ez zirela preso arruntak. Gainera, 578 horien artean, 298 jada zeuden Fondo Dokumentalean sartuak eta, ikerketa honen bidez haien informazioa eguneratu eta kasu batzuetan zuzendu ahal izan dugu, izen asko balidatzeaz gain, Fondoan ikusgai ez bazeuden ere, jada erregistratuta zeudenak.

### **3. ESPETXEAK ETA ERREPRESIOA**

#### **3.1. Espetxeak errepresioaren testuinguruan**

Frankismoko errepresioa bere dimentsio guztian ulertzeko, ezinbestekoa da gatibualdia eta espetxe-sistema ulertzea erregimenaren makineria errepresiboan izan zuen garrantzi guztiarekin. Garrantzi hau, alde batetik, gatibualdiaren bidez errepresaliatutako pertsonen kopuruarekin erlazionatuta dago baina, bestalde, gatibualdiak erregimen nazionalkatolikoan izan zuen balio sinbolikoarekin ere.



Azken berrogeita hamar urteetan zehar, gatibualdiak errepresio frankistan izandako paperaren inguruko hainbat ikerketa egon dira, aztergai honek azken urteotan bultzada garrantzitsu bat izan duelarik. Hala ere, azpimarratzekoa da lan hauen interesa gehien bat kontzentrazio-esparruetan jarri dela eta, hala nola, langileen batailoiak, espetxe-koloniak edo destakamentu penalak, preso zeuden gizon eta emakumeen lan-esplotazioaren epizentro bihurtu ziren espazioen inguruan jarri baita lehentasuna. Autore batzuek adierazten duten moduan, gatibualdi-zentroen ikerketan ageri den gabezia hau lehen mailako iturrien urritasunak azal lezake. Kezka hau, hain zuzen ere, ohikoa da gerra eta gerraosteko espetxe frankistak ikertu dituztenen artean eta ohikoa da espetxeek sortutako dokumentazioa sarritan suntsitu izana edota garbiketa- eta ezabatze-prozesuak jasan izana multzo zatikatu eta sakabanatu bihurtuz (Rodríguez Teijeiro, 2007). Kontuan hartzekoa da ere azken hamarkadetan egondako iturrien zabalkuntza, orain arte historialarientzat eskuraezinak ziren hainbat informazio iturrien irekitze prozesua, batez ere artxibo militarretan, penaltan eta espetxeetan daudenak (Gómez Bravo, 2006). Hala ere, Nafarroaren kasuan badira aipatu beharreko zenbait salbuespen, hala nola San Kristobal gotorlekuarena, zeinaren garrantzia eta nabaritasuna direla-eta, sakonago aztertu baita, beste eskualde batzuetan gertatu ez den bezala.

Eremu honen ikerketan aurrera egin den arren, espetxe frankisten azterketari buruzko eztabaida asko daude oraindik irekita, besteak beste, presoek zifren inguruko eztabaidak. Desadostasuna, batez ere gerran eta gerraostean espetxeratuak izan zirenen inguruan ematen da, garai hartako zifra ofizialen eskasari zor baitzaio. Erabiliak izaten diren zifrak hainbat iturrietatik datoz, hala nola, Espetxeen Zuzendaritza Nagusiaren memoriak, Espainiako gobernuak 1952an herrialdea bisitatu zuen Kontzentrazio Erregimenaren Aurkako Nazioarteko Batzordeari emandako informazioa eta *Espainiako Estatistika Urtekaria* (Rodríguez Teijeiro, 2007, 12). Gerraosteko lehen uneak pasata, iturri hauek guztiz fidagarritzat jotzen dira, bereziki 40ko hamarkadatik aurrera eta, zehatzago, 1945etik aurrera. Beraz, iturri hauen arabera, esan dezakegu 1940ko urtarrila-

ren 1ean 270.719 preso inguru zeudela frankismoko espetxe sisteman, gehi kontzentrazio-esparruetan eta langileen batailoietan zeuden beste 92.000 preso, osotara 363.000 preso inguru izanik (Rodríguez Teijeiro, 2007, 13; García Funes, 2022, 252). Adituek diotenez, erregimen frankistak lortutako gatibutasun-zifrek aise gainditu zituzten beste erregimen faxistenak, hala nola, faxismo italiarrak, Vichy-ko Frantziak edo Portugal salazaristak utzitako zifrak (García Funes et al., 2021).

Ikus dezakegun bezala, gatibualdia den fenomenoak diktadura garaian lortu zuen dimentsioa dela-eta, errepresio frankistaren beste alderdi batzuei eman zaien garrantzi bera merezi du. Errepresio-mota hau pairatu zuten gizon eta emakumeen memoria berreskuratzea ezinbestekoa da hain konplexua den fenomeno hau ulertzeko (Gómez Bravo, 2006).

Esan den moduan, fenomeno hau ez zen soilik erregimen frankistan eman, izan ere, Europako ia gobernu totalitario guztiek garatu zituzten beren etsai politikoak zapaltzeko nolabaiteko kontrol-sistemak. Arazoa, beraz, ez da soilik gatibualdiaren garrantzia ez ezagutzea, baizik eta espetxeratze masiboak soilik gerran zehar emandako errepresioarekin erlazionatzea, erregimen autoritarioak sendotzeko politikarekin lotu gabe. Erregimen frankistak, European emandako kasu bakarra ez izan arren, baditu hainbat berezitasun. Hasteko, frankismoak ez zuen etsaia Espainiako mugetatik kanpo bilatu, baizik eta gizarte espainiarrean bertan, gerra eta, horretaz gain, gerraostea bereziki latzak eginez. Frankismoak, "liberala" kontsideratzen zuen amnistiaren ordean, bekatuen errendentzio eta ordaintze gisa ulertutako barkamen bat ezarri zuen, erregimenaren etsaiak gizartera itzultzeko bide bakar bezala. Hortaz, ikus daiteke Espainian boterea legitimatzeko gehien nabarmendu zen elementua erlijiosoa izan zela. Gómez Bravo-k (2008) dioen moduan: "zigortzeko eskubidea jainkozko eskubide gisa ulertu zen (...), Alemania naziaren, Italia faxistaren edo Errusia sobietarraren arraza edo estatu osagaitik oso urrun geratzen zena" (Gómez Bravo, 2008, 166). Beraz, beste erregimen diktatorialek ez bezala, frankismoak gizartea garaile eta garaituen artean banatu zuen, eta banaketa horren inguruan itxuratu zuen errealitate soziopolitiko.

Hau aurrera eramateko, matxinatuek hainbat “legezko” tresna erabili zituzten, haien artean justizia militarra eta espetxe-sistema bereziki nabarmentzen direnak. Izan ere, altxamendu militarrek helburu zeukan garbiketa politikoaren eta matxinatu haiek eraikitako estatu frankista berriaren ardatza osatuko dute bi kontzeptu hauek (García Funes et al., 2021). Baina hori gertatu aurretik, espetxe-sistema frankistak eraldaketa batzuk izango ditu, azkenean erregimen guztiaren legitimazioa lortu arte.

### **3.2. Legegintza-bilakaera**

Gatibualdiaren inguruko legegintzari begira, 1936 urtea baino lehen garrantzi handiena Berrezarkuntza garaiko oinordekoa zen espetxe-sistemak zeukan Espainian, turnismoan zehar egonkor mantendu zena, estatuko menderatze-aparatuaren funtsezko zati bezala (Oliver Olmo, 2013, 31). Fundamentuzko aldaketarik egin gabe, sistema honek Bigarren Errepublikaren garaira arte biziraun zuen, eta, garai hartan ere, aldaketak ez ziren aipagarriak izan. Balio errepublikanoetarako egokiagoa zen espetxe-sistema bat osatzeko batzorde bat sortu zen arren, bere jarduera eten egin zen proposatutako helburua lortu gabe, besteak beste, Victoria Kentek bultzatutako berrikuntzak, zigorren kontzeptu zuzentzaileagoa eta humanizatzaileagoa bilatzen zutenak (García Funes et al., 2021; Oliver Olmo, 2013).

Gerra Zibilean zehar eta frankismoko lehen urteetan, hau da, 1936tik 1945era, erregimenak eraiki nahi zuen espetxe-sistemak zehaztu gabeko alderdi asko zituen. Ez zegoen inolako espetxe-tratamendu espezifikorik presoen sailkapenari dagokionez, ezta presoan antolamendurako eta funtzionamendurako eredu teoriko argirik ere. Antolaketa gabezia hori, gerraren anabasari eta erregimena finkatu zeneko lehen urteei lepora dakiokiena, kontzienteki bilatutako zerbaite izan litzateke. Alde batetik, erregimena nazioartean ematen ari ziren bilakaeretara egokitzea ahalbidetzeko helburuarekin eta, aldi berean, erregimena ahalbidetzen zuten sektoreen arteko liskarrak saihesteko. Gerraren lehen hilabeteetan egon zitezkeen autoritate hutsuneak, nagusiki bi modu ez-

berdinetan bete ziren. Lehenik eta behin, 1930eko Espetxe Zerbitzuaren Araudiaren bidez, Bigarren Errepublikan erabili izan zena eta, hortaz, faxistek behar bezala purgatu zutena. Bigarrenik, probintzietako agintari militar gorenen bidez, espetxeetako zuzendariak haien menpe utziz aginte zentralik ez zegoen bitartean (Rodríguez Teijeiro, 2007).

Gerraosteko lehen urteetan zehar, erregimenak espetxeak kudeatzeko legediaren eta sistema bera kolapsatzeko mehatxu egiten zuen preso kopuru izugarri baten arteko kontrastea ezagutu zuen. Teoria eta errealitatearen arteko arrakala hau gainditzeko, baita gerran zehar Errepublikaren eskuetan egondako espetxeak martxan jartzeko, erregimenak Espetxeen Kidegoa berreraiki zuen, hura osatzen zuten langileen plantilla handituz. Prozesu honen helburu nagusia, espetxeetan lan egingo zuten funtzionarioen profil zehatz bat lortzea zen. Beraz, ezaugarri moral, ideologiko, eta bizi-esperientzia batzuk kontuan hartu ziren, gehien bat borrokalari ohiak, gatibu ohiak eta errepresio errepublikarra zuzenean edo hurbiletik jasan zuten pertsonak bilatuz, modu horretan presoekiko areriotasuna bermatzeko (Rodríguez Teijeiro, 2007).

Espetxe-sistema arautzen zuen legerik garrantzitsuena 1948eko Espetxe Zerbitzuaren Araudi berria izango litzateke. Araudi honek 1930ko Espetxe Araudia ordezkatzeko, 1936ko amaieratik indarrean zegoena baina, nolana ere, frankistek ezarritako xedapen ugariak ez-eraginkor bihurtu zutena (Gómez Bravo, 2006; García Funes et al., 2021; Rodríguez Teijeiro, 2007). Hala ere, ez zen espetxe-sistema frankista instituzionalizatzeko lehen urratsa izan.

Espetxe-sistemaren kudeaketa zentralizatu eta uniformerako beharrezkoak ziren organismoak diseinatu eta ezartzeko prozesua 1938an amaitu zen, Justizia Ministerioaren sorrerarekin eta horren barnean zegoen Espetxeen Zerbitzu Nazionalarekin. Honek, espetxeen administrazio-kontrolaz gain, presoan lan-esplotazioaren kudeaketa ere ahalbidetzen zuen, eta, are garrantzitsuagoa dena, presoan doktrinamendu politiko-moralak; guzti hau gerra amaitu baino lehen. Aipatzekoa da ere erlijio-komunitateek espetxeetan izan behar zuten papera, 1941ean zehaztutakoa: elikaduraren kudeaketa kontrolatuko zuten,

eta erlijio-komunitateko ama nagusia espetxeko Diziiplina Batzordean sartuko zen bokal gisa. Beste behin ere, erlijiotasunak espetxe frankistan duen garrantzia ikusten dugu. Eta horrekin lotuta, lanaren bidezko Zigorren Erredentziorako Patronatuak jokatu zuen paper nagusia ere badago, geroago, 1942an, Espetxeen Zuzendaritza Nagusia erabat berrantolatzea ekarri zuena, bere behin betiko forma emanaz (Rodríguez Teijeiro, 2007).

### **3.3. Espetxetik ateratzea eta baldintzapeko askatasuna**

Gerra amaitu eta gutxira, 1940ean bertan, preso kopurua handiena zenean eta espetxe-sistemaren instituzionalizazioa oraindik garatzen ari zela hasi zen espetxeak husteko prozesua. Honek erlazio dauka jada aipatu den kartzelen masifikazioarekin, izan ere, gatibualdi zentroen gehiegizko okupazioak sistema osoa kolokan jartzen zuen, haren kudeaketa oztopatuz. Franco-k berak ezarri bezala, prozesu hau ez zen gauzatuko inolako "estilo liberal" bati jarraituz, hau da, amnistiaren bidez, horrek esan nahi baitzuen frankismoak zigortutako jokalariak ez zirela delitutzat hartu behar. Beraz, espetxeak hustutzeko prozesuak lana izango zuen oinarri, erlijio katolikoaren penitentiarekin lotutako ideia baitzen, eta honek bai argi uzten baitzuen garaituen erruduntasun eztabaidaezina. Hala ere, azkar ikusi zen lanaren bidezko erredentzioa zein motela zen eta ez zuela espetxeen gainokupazioa arintzen. Prozesu hau azkartzearen, bi batzorde sortu ziren: Presoak Sailkatzeko Probintzia Batzordeak eta Zigorrek Aztertzeako Batzordeak. Lehenak, izenak dioen moduan, presoak sailkatzea zuen helburu, haien atxiloketak eta legezko egoera zehaztasunez aztertuz. Batzorde horien lanetik abiatuta, aske utzi zituzten, alde batetik, beren kausa eta atxiloketea agindu zuen agintaritza ezezagunak zituzten presoak, betiere jatorrizko udalherriari eskatutako txostenak aldekoak baziren, eta, bestetik, gobernu-atxilotuak, espetxeratu eta hogeita hamar egunera zegokion agintaritzak ez bazuen atxiloketa berresten. Bestalde, Zigorrek Aztertzeako Batzordeen helburua ezarritako kondenak berrikustea zen, gerraostean ezarritako arau berrietara egokitzeko. Baina, dena den, hauen lana motelegia izango zen ere (Rodríguez Teijeiro, 2007).

Hortaz, presoen kopurua murrizteko beste tresna bat erabili behar izan zuten: baldintzapeko askatasuna. Honek 1945etik aurrera espetxe-politikan eman ziren aldaketekin erlazio dauka, behin Bigarren Mundu Gerra amaitu ondoren, erregimenaren gehiegikeria errepresiboak nazioartean gaitzetsi baitziren, nazien kontzentrazio-esparruekin eta erregimen autoritarioen berezko beste praktika errepresibo batzuekin zuten paralelismoagatik. Justizia Ministerioak, gerra-osteko espetxe-politikari zegokionez, hilkortasunaren, zigor kolektiboen eta tratu txarren murrizketa bilatu zuen, baita sinbologia faxistaren ezabatzea ere. Espetxe-politika berri honen ardatz nagusia baldintzapeko askatasuna izan zen, preso kopurua arintzen zuen bitartean frankismoan gatibualdiak zuen irudia eraldatzeko (García Funes et al., 2021).

Baina horrek ez zuen esan nahi presoak automatikoki aske gelditzen zirenik. Aitzitik, frankismoan, baldintzapeko askatasuna presoek espetxeetatik kanpo jasandako espetxe-sistemaren hedapen bat izan zen. Presoak, behin baldintzapeko askatasuna lortzen zutela, tokian-tokiko autoritateen zaintzapean gelditzen ziren, haien bizitza kontrolatuz eta sistemarekiko zuten menpekotasuna mantenduz (García Funes et al., 2021). Urteak izango dira benetako askatasunarekin zerikusirik ez duen egoera horretara iristeko. Hasiera batean, 1940ean, kondenaren laurdena beteta zuten hirurogei urtetik gorako presoek eman zieten baldintzapeko askatasuna, arrazoi "humanitarioak" zirela eta: haien adinagatik ezin zuten lanen bidezko erredentzio sisteman parte hartu eta, gainera, ia edozein zigor kartzelan hiltzearen sinonimo zen. Horrela, 1940eko ekainean, espetxetik ateratzeko prozesua hasi zen, "aparteko onuren" bitartez. Ondoren, askatasuna jurisdikzio militarrek sei urte eta egun bat eta hamabi urte arteko zigorrak ezarritako presoek eskaini zieten, beti ere kondenaren erdia beteta izanda. Horrez gain, beste hainbat baldintza bete behar zituzten, hala nola, alkateak, zonaldeko F.E.T.-eko buruzagiak eta guardia zibileko buruzagiak betetako onezko txostenak izatea, jokabide eredugarria izatea, eta Masoneria eta Komunismoa Erreprimitzeko Auzitegiak epaitu ez izana, besteak beste (Rodríguez Teijeiro, 2007).

Denborak aurrera egin ahala, prozesu hau azkartzeko xedearekin, hainbat lege-mekanismo berri sortu ziren baldintzapeko askatasuna gero eta preso gehiagori eskaintzeko, hala nola baldintzapeko askatasun arindua eta behin-behineko baldintzapeko askatasuna. Horrela, urteak iraun zituen prozesu honen ondorioz, 1940ko urtarrilaren 1etik 1946ko abenduaren 31ren bitartean gutxienez 170.484 zigortu atera ziren espetxeetatik baldintzapeko askatasunean (Rodríguez Teijeiro, 2007).

#### **4. IRUÑEKO ESPETXE PROBINTZIALAREN HISTORIA ETA KOLPEAREN OSTEKO PRESO KOPURUAREN BILAKAERA**

Iruñeko Espetxe Probintzialak 1907an ireki zituen ateak eta 2012ra arte egon zen zutik Donibane auzoan okupatzen zuen zelaigunean. Eraikin honek, San Frantzisko plazan zegoen espetxe zaharra ordezkatzeko zuten eta, bere bizitzan zehar, Diputazioaren gestiopean egon zen (Mikelarena, 2015). San Frantzisko plazan zegoen espetxearen baldintza txarrak eta diseinu zaharkitua zirela-eta, oraindik Erdi Aroko egitura gordetzen baitzuen, XX. mendearen hasieran Espetxe Probintziala berritzeko beharra zegoen. Eraikin berriarekin, mende hasierako hainbat berrikuntza iritsi ziren Nafarroako hiriburura, hala nola Benthamen "panoptikoa", hau da, oinplano arkitektoniko zirkular ospetsua, erdiko zaintza-dorrea duena. Espetxe berriak oinplano karratua zeukan eta 194 zeldez osatuta zegoen, lau patio eta hiru solairu zituelarik. San Frantzisko plazan zuden presoek gain, espetxe honek Lizarrako espetxeko hainbat preso hartu zituen bere barnean, tamaina handiagoa zeukalako eta, gainera, hobeto egokituta zegoelako, adibidez presoentzako liburutegi eta tailerrekin. Hala ere, espetxeko bizi baldintzak ez ziren beti hoberenak izan, eta jada Bigarren Errepublikan egon ziren egoera hau salatzen zutenak, bereziki emakumeen atalean. Gainera, Errepublika garaian, heriotza-zigorra indargabetu zen arte, exekuzioak egon ziren espetxeko patioan, espetxea ireki eta gutxira hasi zirenak (Oliver Olmo, 2003). Hala ere, aipatzekoa da frankismo garaian praktika hau eten

egin zela; izan ere, une horretan, oro har, presoak espetxeetatik ateratzen ziren erailak izateko.

1936ko uztailetik aurrera, espetxeak jasotako preso kopurua handiagotuz joan zen, arrazoi politikoengatik atxilotutako pertsona asko han sartuko dituztelako, askotan modu prebentiboan eta inolako bermerik gabe. Gerra Zibilean eta diktadura frankistan zehar, preso asko igaro ziren espetxetik, arruntak zein politikoak, beste espetxe batera bidali zain, epaiketaren zain, edo zigorra betetzeko. Preso zeuden pertsona horietariko asko aske utzi zituzten, baina itxuraz bakarrik, hil egiten baitzituzten espetxetik atera eta gutxira. Praktika hau, presoak itxuraz aske uztea geroago erailtzeko, ohikoa izan zen Gerra Zibilaren lehen momentuetan (García Funes et al., 2021; Majuelo, et al., 2021).

Preso kopuruari dagokionez, Nafarroako Oroimen Historikoari buruzko Fondo Dokumentalak bildutako datuen arabera, gutxienez 7356 pertsona pasa ziren Iruñeko Espetxe Probintzietatik 1936tik aurrera. Benetan nabarmentzekoa da Errepublikaren garaitik 1936ra dagoen izugarritzko gorakada preso kopuruari dagokionez: Estadística Urtekariaren arabera, 1933ean soilik 171 preso zeuden Espetxe Probintzietan baina 1790 izatera iritsiko ziren hiru urteren buruan. Joera hori ez da soilik Nafarroan ematen, estatu osoan baizik, 1934an 12000 preso izatetik 1939an 90000 baino gehiago izatera igaro baitzen (Espainiako Estadística Urtekaria, 1943; García Funes et al., 2021).

1940 baino lehen 2000 preso izatera iritsi ziren arren, urte horren amaieran presoak ez ziren 900 izatera iristen (815 guztira), eta 1945erako kopurua 352ra jaitsi zen. Espetxearen biztanleria penalarren beherakada orduan hasi zen, eta 50eko hamarkadan 100-200en artean mantendu zen arren, 60ko hamarkadan urteko batezbestekoa ez zen 100era iritsi. Hala ere, 1973an eta 1974an emandako gorakada nabarmena izan zen, 1972ko zifrak ia bikoiztu baitzituzten. Preso egon ziren guztien artean, 425 hil zituzten, gehiengoak espetxetik aterata eta gutxira, epaiak betearazteko, saketan edo lekualdaketa faltsuetan. Gainera, beste 13 pertsona hil ziren gatibu Espetxe Probintzietatik pasa eta gero, nahiz eta espetxean bertan horietatik soilik 5 hil ziren (García Funes et al., 2021).




Beraz, badakigu espetxe honek hirurogeiko eta hirurogeita hamarreko hamar-kadetaren erregimenaren aurkako mugimendu ezberdinetako disidente politikoak hartu zituela. Are gehiago, trantsizioan eta ondorengo urteetan, Nafarroako espetxe nagusia izaten jarraitu zuen, eta beste mugimendu batzuetan parte hartu zuten pertsona askok, intsumisoak kasu, espetxe honetan bete zituzten zigorrak 90ko hamarkadan. Izan ere, garai batean kartzela zegoen Nafarroako Justizia Jauregiaren ondoko zabalgunek "Intsumisioaren Parkea" izena du 2018tik (García Funes et al., 2021).

Azkenik, ezin ditugu ahaztu lan honen izaera dela-eta orain arte kontuan hartu ez ditugun presoak, preso arruntak, diktaduraren lehen hamarkadak igaro ondoren espetxeko biztanleriaren gehiengoa izan zirenak.

Erroldako datuen bilketan zehar datu asko izan dira nabarmenak espetxeko biztanleriaren bilakaera ulertzeko. Datu hauek, beste iturrietatik ateratakoekin konparatuz, erabiliak izan dira, hortaz, Iruñeko biztanleriaren zati partikular hau ulertzen saiatzeko eta, bereziki, 1936ko kolpearen inguruko gizarte-eraldaketak azaltzeko. Izan ere, kopuruei soilik begiratuta, eraldaketa jada da agerikoa.

## 1. Irudia. Iruñeko Espetxe Probintzialeko biztanleria penal orokorra (1932-1933) eta preso politikoak (1936-1940).



Iturria: Egileak egina Espainiako Estadística Urtekariko, FDMHN-eko eta Iruñeko Udal Artxibategiko 1940ko erroldako datuekin.

Grafikoan (1. Irudia) ikusi dezakegun moduan, 1933tik 1936era ematen den gorakada izugarria da: ia 200 preso izatetik, 1700 ingurura igarotzen da eta, hurrengo urteetan ikusten den bezala, joera hori ez zen puntuala izan, ezta kasu isolatu bat ere. Frankismoko lehen urtetan eta, bereziki, gerra iraun zuen bitartean, espetxeratzeak masiboak izan ziren. Zehaztu behar da, edonola ere, zifra soilek ezin dutela errealitate hain konplexu eta anitz baten alderdi guztiak azaldu. Kasu honetan bertan, grafikoaren izenburuan zehazten den datua garrantzitsua da, inolako datu gehiagorik gabe ezin baitugu jakin 1936 baino lehen preso horietatik zenbat ziren preso arruntak eta zenbat zeuden preso arrazoi politikoengatik, baina, edonola ere, 1936 urteko gorakada ez zen kointzidentzia izan.

Aurrerago ikusiko dugun moduan, Espetxe Probintzialeko presoengatik inguruko hainbat alderdi dira interesgarriak, bereziki haien artean gurutzatzerakoan, horrela lortzen baita pertsona hauen testuingurua hobeto ulertzea. Besteak beste, adina, irakurtzen eta idazten zekiten ala ez, lanbidea eta egoera zibila jakitea erabilgarria da pertsona hauen bizitzak berreraikitzerakoan. Baina, ikerketan zehar aurkitutako datu guzti hauek aurkeztu aurretik, espetxeko bilakaera orokorra ulertzeko alderdi bat aztertuko dugu: presoengatik.

Grafikoak (1. Irudia) islatzen duen moduan, Iruñeko espetxean beste espetxe probintzial gehienetan ematen zen joera aurkituko dugu, hau da, emakumeen kopurua askoz txikiagoa izatea gizonezkoekin konparatuz. Orokorrean, emakumeek haientzako kartzela propioak zituzten eta bestelako espetxeetan egon behar baldin baziren, Iruñeko Espetxe Probintziala kasu, emakumeen saila zeukaten, gizonezkoek okupatutako sail orokorretik banandua egoten zena (Hernández Holgado, 2013). Gizonezkoen preso kopuruak egindako gorakada askoz nabarmenagoa den arren, kontuan hartzekoa da 1932 urtean soilik emakume bat zegoela espetxean eta, lau urterenen barruan, 113 direla. Daturik altuena 1940. urtean ematen da, gizonezkoen zifrak behera egiten hasten den une berean.

## **5. 1940 URTEKO BIZTANLERIA PENALA: PRESO POLITIKOAK**


Atal honetan, aurretik azaldu dugun bezala, ikerketatik eratorritako emaitzen analisi bat egingo dugu, bai lehen aipatutako iturrietatik eratorritako datuetan oinarrituta, baita informazio guztia datu-basean iraultzean atera ditugun ondorioetan ere.

Alabaina, lehenik eta behin aipatu beharrekoa da datu baseak bere baitan jasotako kasu guztiak sailkatzeko jarraitzen duen irizpidea. Errepresio mota edozein dela ere, datu basean sartutako izenak bi multzo handitan banatzen dira: balidatuak daudenak eta balidatu gabe daudenak. Irizpide honek publikoki ikusgarri dauden eta ez dauden kasuak banantzen ditu, hau da, FDMHN-ren webgunean publikoki agertzen diren izenak eta edonork aurki ditzakeenak alde batetik (balidatuak izan direnak), eta datu basearen barruan daudenak baina soilik ikertzaileentzat ikusgarri daudenak (balidatu gabe). Bi talde hauek banatzeko, Fondo Dokumentalak sinplea dirudien irizpide bati jarraitzen dio: pertsona batek errepresio politiko mota bat pairatu duela frogatzeko modurik balego, orduan kasu hori balidatuko da eta FDMHN-ren webgunean agertuko da. Bestela, izena eta aurkitu diren datuak gordeko dira, baina kontsulta soilik administratzaile-profilei mugatuz. Hala ere, kasu batzuetan ez da erraza erabakitzea balidatu ala ez; izan ere, errepresio mota batzuk, hala nola ekonomikoak, aldi baterakoak izan daitezke edo zigorrik gabe konpon daitezke. Gainera, askotan gerta liteke informazio-iturri batek behar adina informazio ez ematea, eta informazioa gorde behar izatea kontrastatu ahal den arte. Azken batean, irizpide hau datu-basean agertzen direnak errepresioaren bat jasan zuten pertsonak direla ziurtatzeko metodo bat besterik ez da.

Eskuan dugun ikerketaren kasuan, irizpide honek Espetxe Probintzian errepresio politikoaren ondorioz preso zeudenak eta preso arruntak desberdintzen laguntzen gaitu. Grafikoan (2. Irudia) ikusi dezakegun moduan, datu hau kontuan izateko modukoa da, izan ere 1940 urtean Espetxe Probintzian zeuden presoaren %70 preso politikoak ziren edo, gutxienez, beste motatako errepresioa

pairatu zuten presoak izan ziren. Hala ere, ezin dezakegu esan beste 237 presoak preso politikoak ez zirenik, soilik ez dugula informazio nahikorik datu hori kontrastatzeko. Gainera, 237 horietatik soilik 40 bizi ziren Nafarroan eta, beraz, normala da beste 197 horiei buruz informazioa eskasa izatea, preso arruntak ala politikoak ziren ziurtatu ezinik, nahiz eta FDMHN-k egindako lanaren bidez formulatutako hipotesiek pentsaraziko liguketan preso horietako asko ere politikoak izango zirela.

## 2. Iruñea. Iruñeko Espetxe Probintzialeko biztanleria penal orokorra, preso politikoak eta arruntak bereizita (1940).




Iturria: Egileak egina, Iruñeko Udal Artxibategiko 1940ko erroldako datuekin.

Ikerketaren emaitzak irizpide zehatzagoei jarraituz aztertzen hasi aurretik, aztertuko ditugun datuak zeintzuk diren aipatu beharra dago eta, aurrekoari begira, kasu honetan zehaztu behar da analisisian erabilitako datuak ez direla 1940ko Espetxe Probintzialeko biztanleria osoari buruzkoak, baizik eta balidatutako kasuei buruzkoak. Hau da, analisisian ez ditugu 815 kasuak kontuan hartuko, baizik eta FDMHN-ean balidatuta dauden 578ak, aurretik aipatutako "preso politikoak", argitasunaren mesedetan hemendik aurrera horrela deituko ditugunak.

Balidatutako 578 kasu hauen artean, hala ere, soilik 51k dute beste espetxeratzetxe bat erregistratuta, edo beste modu batera esanda, hautatutako kasuen %91arentzat 1940koa izan zen orain arte erregistratutako gatibualdi bakarra. 51 horien artean, soilik bat zen emakumea eta guztiak, hiru izan ezik, bigarren aldiz zeuden espetxean. Bi alditan baino gehiagotan espetxeratuak izan zirenen hiru horien artean, bi hiru alditan egon ziren gatibu, eta soilik bat lau alditan.

### 3. Iruñea. Iruñeko Espetxe Probintzialeko preso politikoak Nafarroan espetxeratuak izandako aldi kopuruaren arabera sailkatuak, FDMHN-ak bildutako informazioaren arabera (1940).




Iturria: Egileak egina, FDMHN-eko eta Iruñeko Udal Artxibategiko 1940ko erroldako datuekin.

Behin hau esanda, emaitzak aztertzeko erabiliko dugun lehen irizpidea presoaren sexua izango da. Gizonezko presoaren eta emakumezko presoaren kopuruaren arteko aldea agerikoa zen, baita ikerketa-prozesua amaitu aurretik ere. Nabarmena zen emakumezkoen kopurua proportzionalki askoz txikiagoa zela eta, behin datu guztiak bilduta, hau hipotesia izatetik egitatezko izatera igaroda. Grafikoan ikus dezakegun moduan (4. Irudia), 1940 urtean Espetxe Probintzialean zeuden preso politikoaren ia %90a gizonezkoa zen. Aurretik aipatu dugun bezala, emakumeen kasuan, bi aukera zeuden espetxeei dagokienez:

emakumeentzat soilik ziren espetxeak edo emakumeentzat gordetako hegaldak, gehienbat gizonentzat ziren espetxeetan. Frankismoan zehar, emakumeen espetxeek garrantzi handia izan zuten eta ia eskualde guztietan aurkituzkezen lehendik zeuden hainbat egitura erabiliz (Francés Lecumberri, 2015). Hala ere, Nafarroako kasuan ez dugu emakumeentzako kartzela eksklusiborik aurkitzen. Gerraosteko lehen urteetan zehar, emakumeak gizonekin batera espetxeratuta zeuden, haien artean gordetako modulan, baina hala ere espetxe berdinean. Francés Lecumberri-ren hitzetan: "(...) ebidentzia argiak daude Gerraren aldi batean Iruñeko gizonen kartzela emakume batzuei ere ostatu emateko gaitua izan zela" eta "aldi baterako baino ez zen izan, izan ere, Nafarroako emakume asko Estatuko beste espetxe batzuetara bidali zituzten, eta demokrazia iritsi zenean, Nafarroako emakume presoak ia sistematikoki Langraiz Oka-ko espetxera bidali zituzten, Iruñetik gertuen dagoen espetxera" (Francés Lecumberri, 2015, 475). Beraz, esan dezakegu ikerketa honetan aurkitutako emakumeak, guztiak ez badira ere, gutxienez Iruñean 1940an preso egondako emakume gehienak direla.


#### **4. Irudia. Iruñeko Espetxe Probintzialeko preso politikoak sexuaren arabera (1940).**



Iturria: Egileak egina, Iruñeko Udal Artxibategiko 1940ko erroldako datuekin.

Gizonezkoen preso kopurua emakumeena baino askoz handiagoa dela alde batera utzita, ikus dezakegu, presoen adinari erreparatuz gero, pertsona gehien aurkitzen ditugun adin-tarteak berberak direla sexua kontuan hartu gabe. Orokorrean, preso gehien aurkitzen ditugun adin tarteak 25 eta 34 urteen artekoa da. Hau da, adin-tarte horietan Iruñeko Espetxe Probintzialeko preso politiko guztien %44,3 zeuden 1940an, beraz, nabarmena da biztanleria penala funtsean gaztea zela, kopururik handiena hartzen duen hurrengo tarteak 20 eta 24 urte bitarteko presoena baita, biztanleria-piramidean (5. Iruudia) islatzen den bezala. Gainera, argi ikusten den bezala, adinen arteko tarteak askoz handiagoa da gizonen kasuan emakumeen kasuan baino, non adin-tartearen arteko desberdintasunak txikiagoak diren.

### 5. Iruidia. Iruñeko Espetxe Probintzialeko preso politikoaren biztanleria-piramidea (1940).




Iturria: Egileak egina, Iruñeko Udal Artxibategiko 1940ko erroldako datuekin.

Hemen aurkeztutako biztanleria penala aztertzeko beste datu bat kokapen geografikoa izango litzateke. Honi dagokionez, ikerketan erabilitako iturri nagusiak lau datu ezberdin eskaintzen dizkigu: jatorrizko udalerrria eta probintzia, eta bizileku-udalerrria eta probintzia. Atal honetarako, bizileku-probintziaren

datua erabiltzea aukeratu dugu, hainbat arrazoi direla medio. Hasteko, udalerrien gaineratik probintzia aukeratu izanak izendapenetik eratorritako premia bati erantzuten dio. Probintzien izenak finkoak diren bitartean, udalerrien kasuan bariazioa askoz handiagoa da eta batzuetan zaila izan daiteke udalerrien izen zehatza definitzea, bereziki herri txikien kasuan. Bestalde, ez du me-rezi jatorrizko probintziaren eta bizileku-probintziaren arteko bereizketarik egi-teak; izan ere, erroldaren azterketan egiaztatu ahal izan dugunez, datua erre-pikatu egiten da, eta bi zutabeak berdinak dira. Hortaz, hemen aurkeztutako analisisirako, soilik bizileku-probintziaren datua erabiliko dugu.

6. Irudian islatutako grafikoan ikus dezakegun moduan, gehien errepikatzen diren lau probintziek kasu guztien ia %50 osatzen dute, zehazki %46a. Hauek Nafarroa (115), Madril (71), Malaga (60) eta Bizkaia (19) dira. Nafarroak ehuneko handiena duen arren, erkidegotik gertuen dauden probintziek preso ko-puru nabarmen bat errepresentatzen dute: aurretik aipatutako Bizkaiaz gain, Gipuzkoa (16), Araba (5), Errioxa (9), Zaragoza (13) eta Huesca (13) ditugu, osotara 75 pertsona, hau da, totalaren %13a.

### 6. Irudia. Iruñeko Espetxe Probintzialeko preso politikoak probintziaren ar-bera (1940).




Iturria: Egileak egina, Iruñeko Udal Artxibategiko 1940ko erroldako datuekin.



Datu harrigarri eta aipagarria da Malagan bizi ziren 60 pertsonetatik 54 emakumeak zirela, errolda honetan erregistratutako emakume gehien biltzen dituen probintzia Malaga bihurtuz, Nafarroatik urrun, kopururik altuena duen hurrengo probintzia dena eta 6 bakarrik dituena.

Alfabetatzearen inguruan, datu hau aztertzeko modu ezberdinak balioetsi egin ditugu, beste baloreekin gurutzatuz eta konparaketaren bidezko ondorioak ateratzeko helburuarekin. Hala nola, bizileku-probintziarekin gurutzatzea proposatu zen hasiera batean. Hala ere, hau egitean, ikusi genuen lortzen genuen datuak ez zuela hainbesteko garrantzirik, 40ko hamarkadan jada arrunta baitzen irakurtzen eta idazten jakitea, eta kopuru orokorrean, probintzia edozein zela ere, ateratako zenbakiak oso antzekoak ziren. Kasu batean izan ezik: Malagako kasua. Aurretik aipatu dugun moduan, osotara 60 preso zetozen Malagatik eta, haien artean, 54 emakumeak ziren. Alfabetatze maila ikustean, Malagako 60 lagunetatik soilik 24k dakite idazten eta irakurtzen, baina, datu hau gizon eta emakumeen artean banatzean, anomalia honek zentzu handia hartzen du, 54 emakume horietatik 36k ez baitakite ez irakurtzen ez idazten.


## 7. Iruñea. Iruñeko Espetxe Probintzialeko preso politikoaren alfabetatzea (irakurtzen eta idazten dakiten ala ez) sexuaren arabera (1940).



Iturria: Egileak egina, Iruñeko Udal Artxibategiko 1940ko erroldako datuekin.

Alfabetatzeari buruz hitz egitean, grafikoan (7. Irudia) ikusi ahal denez, emakumeen eta gizonen arteko aldea izugarria da, gizonen %99ak irakurri eta idatz zezakeen bitartean, emakumeen kasuan ehuneko hori %48raino jaisten baita.

### 8. Irudia. Iruñeko Espetxe Probintzialeko preso politiko analfabetoak sexuaren arabera (1940).



Iturria: Egileak egina, Iruñeko Udal Artxibategiko 1940ko erroldako datuekin.

Hau da, espetxeko biztanleriaren %13 soilik izan arren, irakurtzen eta idazten ez zekitenen %90 ziren emakumeak, grafikoan (8. Irudia) islatzen den moduan.

Iturriaren kritikan aipatu denez, lanbidearen araberako analisia egiteak zailtasun espezifikoa dauka, bereziki lanbideen izendapenaren homogeneotasun faltarekin erlazionatuta dagoena. Honek sailkapena oztopatzen du, irizpide bateratu baten galerak analisia bera zailtzen baitu. Hala ere, ikerketa honetan erabilitako iturriak eskainitako informazioari mugatzen baldin bagara, emaitza esanguratsuenak aztertu ahal ditzakegu, irizpide bateratu bat egon ez arren informazio honek berezko balioa baitu. Aipatzekoa da, gainera, Fondo Dokumental bidean duela lanbideen sailkapen bat egitea nazioarteko kodifikazio bati jarraituz etorkizuneko ikerketak errazteko eta errepresaliatuen informazioa ahalik eta modu argienera aurkezteko.

### 1. Taula. Iruñeko Espetxe Probintzialeko preso politikoaren artean gehien errepikatzen diren lanbideak (1940).

LANBIDEAK	PRESO KOPURUA
Nekazari	81
Etxeko lanak	70
Karabinero	59
Jornalari	55
Igeltsero	25
Burdinbideko langile	19
Auto gidari	18
Mekanikari	14
Militarra	12
Bestelakoak	225
<b>Oso tara</b>	<b>578</b>

Iturria: Egileak egina, Iruñeko Udal Artxibategiko 1940ko erroldako datuekin.

Taula honetan (1. Taula) gehien errepikatzen diren lanbideak ageri dira edo, zehatzago, 10 alditan baino gehiagotan agertu diren lanbideak. Erroldan aurkitutako kasu gehienak, hau da, amaieran aipatutako 225 horiek, beste 103 lanbide ezberdinetan sakabanatzen dira. Soilik aipatzen diren lehen lau lanbideak kontuan hartuta, aztertutako kasu guztien ia %50 betetzen dugu (zehazki %45,5a). Hortaz, antzeman dezakegu 1940ean Espetxe Probintzialeko presoaren artean ehuneko garrantzitsu batek lanbide manualetan lotura zeukala.

Nabarmenezkoa da ere kopuru handiena duen bigarren lanbideak, hau da, "etxeko lanak" deritzen horrek, erroldan agertzen diren emakume guztien %89,7a errepresentatzen duela. Hau da, 78 emakume presotik 70.

Kasu bakoitza aztertzeak ez du merezi, neurri batean kasuen kopuruagatik eta baita lehen aipatutako izendapen eta irizpide arazoagatik. Hala ere, zerrenda osoa eranskinetan ageri da, bertan lanbide guztiak eta errepikatzen diren aldiak kopurua agertzen delarik.

## 2. Taula. Iruñeko Espetxe Probintzialeko preso politikoen egoera zibila (1940).

EGOERA ZIBILA	GIZONAK	%	EMAKUMEAK	%	OSOTARA	%
Ezkonduek	245	%49	47	%61	292	%51
Ezkongabeak	246	%49	18	%23	264	%46
Alargunak	10	%2	12	%16	33	%4
<b>Osotara</b>	<b>501</b>	<b>%87</b>	<b>77</b>	<b>%13</b>	<b>578</b>	<b>%100</b>

Iturria: Egileak egina, Iruñeko Udal Artxibategiko 1940ko erroldako datuekin.

Presoen egoera zibila aztertzen badugu, ikus dezakegu ezkonduen eta ezkongabeen kopurua ez dela oso desberdina, bereziki zifra osoei erreparatzen baldin badiegu. Hala ere, zifra hauek nabarmenki ezberdinak dira biztanleria penala sexuaren arabera banatzen baldin badugu. Gizonezkoen kasuan, ezkonduen eta ezkongabeen arteko ezberdintasuna soilik pertsona batekoa da, ezkongabeak gehiengo bihurtuz. Emakumeen kasuan, aldiz, ezkonduak %61a betetzen dute, ezkongabeak %23 soilik diren bitartean, alargunen %16tik gertu gelditzen delarik. Alargunak, kasu guztietan, kopururik txikiena betetzen dute, guztizkoaren %4ra ozta-ozta iritsiz baina, ezkonduen kasuen bezala, ehunekoa askoz altuagoa da emakumeen kasuan gizonezkoenen baino: haien kasuan, alargunek zifra osoaren %2a soilik adierazten dute.

Udal-erroldan aurkitutako datuetan oinarritutako analisi hau egin ondoren, iturrian agertzen ez ziren beste bariabile batzuekin gurutzatu ahal izan dugu informazio hau. Horretarako, FDMHN-ean eskuragarri dagoen informazioa erabili dugu, jada dugun datuekin gurutzatzeko eta bariabileen arteko erlazioak bilatzeko. Analisia egiteko aukeratutako kasuak datu-basean balidatuta daudenez, errepresioa jasandako pertsonen inguruan ari gara eta, hortaz, bi parametro berri izan daitezke interesgarri: alde batetik, zenbatek jasan zituzten beste motatako gertaera errepresiboak eta zein motetakoak izan ziren hauek eta, beste aldetik, zenbatek zeukaten lotura edonolako militantzia politikoa-rekin.

Militantziaren inguruan, ezkerreko alderdi edo sindikatu bateko afiliazioa zuten 8 kasuren erregistroak baino ez daude. Hala ere, merezi du nabarmentzea 8 kasu horietatik 6 behin baino gehiagotan izan zirela espetxeratuak, eta soilik 2k ez zutela beste errepresio motarik jasan espetxeratzeaz gain. Guztiak gizonak ziren. Kontuan hartuta pertsona berdina alderdi bat baino gehiagotan afiliatuta egon zezakeela, hauek dira 8 preso horien militantzia-taldeak, afiliatu kopururik handienetik txikienera: UGT (3), PSOE (3), PCE (2), CNT (1), JS (1), UR (1).

Beste motatako gertaera errepresiboak erregistratuta dituzten artean, militantzia politikoa zeukaten 6 haietaz gain, beste 9 aurkitzen ditugu. Hauen artean ez dago hildakorik, eta horrek erregimen faxistak, gerrako urteetatik urrundu ahala, gauzatutako erailketen kopuruaren pixkanakako beherakadarekin zerikusia izan lezake. Horrek ez du esan nahi praktika hori erabat desagertu zenik behin gerra amaituta, soilik murrizten joan zela, 36tik 39ra egondako hilketa masiboen ondoren. Kontuan hartu behar da, beti ere, honek Nafarroan bizi zirenen edo Nafarroan errepresioa pairatu zutenen datuak direla, eta Nafarroatik kanpoko presoek informazio falta zaigula.

Espetxeratzeaz gain, beste sei gertaera errepresibo mota aurkitzen ditugu: errepresio ekonomikoa, lekualdaketak, kargu publikoen kargugabetzea, garbitze eta errepresio ekonomikoa eta laborala, tortura eta eraso fisikoak eta beste jarduera errepresiboak.

Irudian (3. Taula) islatzen den moduan, gehien topatzen dugun errepresio mota lekualdaketak dira, baita arlo ekonomikoarekin lotura dutenak, izan ere, errepresio ekonomikoa eta garbitzeak batzen baldin baditugu, beste 6 kasu ditugu non errepresioak presoek eta haien familien egoera ekonomikoan eragin izan zuen.

### 3. Taula. Iruñeko Espetxe Probintzialeko preso politikoek jasandako beste errepresio motak eta hauek zenbat aldiz errepikatzen diren (1940).

<b>GERTAERA ERREPRESIBOA</b>	
LEKUALDAKETAK	7
BESTE JARDUERA ERREPRESIBOAK	6
ERREPRESIO EKONOMIKOA	4
GARBITZE ETA ERREPRESIO EKONOMIKOA ETA LABORALA	2
KARGU PUBLIKOEN KARGUGABETZEA	1
TORTURA ETA ERASO FISIKOAK	1

Iturria: Egileak egina, FDMHN-ren eta Iruñeko Udal Artxibategiko 1940ko erroldako datuekin.

Beste errepresio motak pairatu zituzten 15 hauen artean, nabarmentzekoa da kasu partikular bat, Juan Cruz Iriarte Lecea-rena. Guztira, bere izenean erregistratutako bost errepresio-kategoria aurkitzen ditugu, lehen aipatutako gainerrako presoek aurkezten dituzten bizpahiru kategoriak baino nahiko gehiago dena. Gatibualdiaz gain, kargu publikoen kargugabetzea, garbitzea, errepresio ekonomikoa eta lekualdaketa dira hark jasandako errepresio motak, eta bi militantzia-talderekin lotzen zaio: UGT eta PSOE. Fondo Dokumentalean kontsultatu ahal den fitxaren arabera, Altsasuko zinegotzi izan zen, eta lanbidez burdinbideetako langile. FDMHN-ak biltzen duen informazioaren arabera, bi alditan izan zen zinegotzi, 1933 eta 1936 urteetan, eta, 1940ean Iruñeko espetxera iritsi arte, beste sei tokitan egon zen preso 1939ko martxotik aurrera, bai espetxe bai kontzentrazio esparruetan. Albaterako (Valentzia) kontzentrazio esparrutik Alacanteko Campo de los Almendros-era eramán zuten, gero Porta Coeli (Serra) eta Miguel de Unamuno (Madril) kontzentrazio esparruetara lekualdatzeko. Ondoren, Getafeko Ospitale Militarera, eta handik Yserías (Madril) espetxera eramán zuten Iruñan amaitu baino lehen, guztia urtebete baino gutxiagoan. 1941eko otsailera arte eman zuen Iruñeko Espetxe Probintzian, baina horrekin ez zen bere errepresioa amaitu, izan ere, espetxetik atera eta hilabete batzuetara, depurazio-prozesuak zirela eta kaleratu zuten, enpresako

onura sozialak ukatuz. Zoritxarrez, ohikoa da hainbesteko errepresio kontzentrazioak aurkitzea esanahi politikoren bat izan zuten pertsonetan.

1940ko guztizko preso-kopuruarekin alderatuta, agian ez dirudite gehiegi. Hala ere, merezi du berriro gogoraraztea azterketa hau gaur egun ditugun datuetan oinarritzen dela, eta, beraz, ezin dela baztertu etorkizunean informazioa zabalduko denik ahal izanez gero eta, nolanchi ere, gatibualdia bera errepresio fisiko eta psikologikoa eragiteko tresna indartsu bat izan zela.

## **6. ONDORIOAK**

Errepresio frankista zen makineriaren barruan, gatibualdiak funtsezko funtzio bat bete zuen. Ikusi dugun bezala, errepresio mota hau pairatu zutenen kopuruaz gain, garrantzi handiko paper ideologiko bat bete zuen gatibualdiak errejimena bainan, estatu frankistaren areriotzat hartu zituzten pertsonen aurkako zapalkuntza fisiko eta psikologikorako tresna bezala. Frankismoak, bere idealen aurkakoak izateagatik arriskutsutzat jotzen zuen biztanleriaren zati hori pilotzeko, zigortzeko eta "berriz hezteko" leku gisa erabili ziren kartzelak, eta, presoek kopuruak denborarekin murriztu ziren arren, horrek frankismoak zigortu eta gizartetik baztertu nahi zuen pertsona kopuru handiari aurre egin ezin zion espetxe-sistema kudeatzeko eta mantentzeko beharrari erantzuteko modua izan zen, besterik ez.

Sarreran aipatu den moduan, hemen bi ikerketa-lan ezberdinen emaitzak biltzen dira espetxe frankisten demografiaren inguruko analisi hau egiteko. Alde batetik, *Iruñeko gatibualdi zentroak frankismoan zehar: proposamen didaktiko bat* Master Amaierako Lanean zehar aurkitu eta aztertutako informazioa daukagu eta, beste aldetik, Nafarroako Oroimen Historikoari buruzko Fondo Dokumentalarekin batera egindako ikerketaren emaitzak, Iruñeko Espetxe Probintzian 1940 urtean zegoen egoeraren irudia eskaini duena. Hori dela eta, gatibualdia bi alderditan ulertu ahal izan da: batetik, testuinguru zabalago eta konplexuagoan betetzen duen funtzioan, eta, bestetik, 1940ko udal-errola

egin zeneko une zehatzaren irudian. Biak dira informazio-iturri baliotsuak eta beharrezkoak, ezinezkoa baita espetxe-unibertsoa bezalako fenomeno zabal bat ulertzea hura kokatzen den testuingurua aztertu gabe, errepresio mota hori jasan zuten norbanakoen egoera hobeto ulertzeko lagungarri izango baita.

Erroldak eskainitako datu guztiak jaso ondoren, hauen azterketa egin da, FDMHN-k baita beste iturri batzuek eskainitako beste informazio batekin osatuz, hala nola, Espainiako Estatistika Urtekaria. Horrela, 1940 urteaz gain, beste urteetako datuekin konparatu ahal izan dugu informazioa, baita erroldak eskaintzen ez zituen datuak ere lortu ditugu, berriz ere lehen aipatu den testuinguru konplexuago horren ulermena erraztu duena. Hala nola, ikus ahal izan dugu 1936 urtean egondako preso kopuruaren gorakada nabarmena, Gerra Zibilaren baita lehen frankismoaren ezaugarri izango dena. 1939tik aurrera joera aurkakoa izan arren, hau da, kopurua behera egiten hasi zen arren, oraindik aurkitzen ditugu zifra oso altuak eta beherakada hori denboran zehar luzatu zen prozesu baten emaitza da, ez errepresioaren etenaldi batena.

Biztanleria penalaren analisi orokor bat egin ondoren, 1940ko Espetxe Probintzialeko biztanleria penala hainbat irizpideri jarraituz aztertu dugu, hala nola, zenbat izan ziren espetxeratuak lehen aldiz eta zenbatek zeukaten beste gatibualdiren bat erregistratuta datu basean, presoek sexua eta adina, jatorria, alfabetatze maila, lanbidea, egoera zibila, militantzia eta, izatekotan, beste gertakari errepresiboak. Gainera, erroldan agertzen diren 815 kasuen artean, jada datu basean daudenak banandu ditugu, Fondo Dokumentalak kasuak balidatzeko erabiltzen duen irizpidea azalduz, izan ere, gatibualdia ez da soilik errepresio politikorako erabilia izan den tresna, baizik eta estatu guztiek, ideologia kontuan hartu gabe, erabilitako zigorra. Hortaz, garrantzia jarri dugu preso komunak eta politikoak banatzerakoan, eta horretarako beste informazio-iturrien erabilera eta konparaketa ezinbestekoa izan da. Berez, ezin dezakegu esan balidatu gabe dauden preso guztiak preso arruntak zirenik, izan ere, 1936 urtean preso kopuruan egondako gorakadak ondorengoa deduzitzera



eraman gaitzake: balidatu gabe dauden preso horietariko asko preso politikoak ere izatea. Behintzat, hori da hipotesia, egiaztatu ezin dena datu gehiago izan arte.

Azkenik, iturriekin lotuta, aipatu beharra dago ikerketa honetan zehar lehen mailako iturriak izan duen garrantzia, berez, ikerketaren funtsa eta oinarria izan baita. Gertatu ohi den bezala, iturriak, informazio eskaintzeaz gain, hainbat erronka aurkeztu ditu, egoera materialarekin baita edukiekin lotuta egon direnak. Aurretik aipatu denez, iturriaren irakurketan zehar hainbat arazo eta oztopo aurkitu dira, bereziki kaligrafia eta toponimiarekin zerikusia izan dutenak. Hala ere, analisia eragotzi beharrean, interpretaziorako eta erabakiak hartzeko aukera bat izan da, giza akatsak baldintzatutako iturri bati aurre egin behar izan baitio. Hori ohikoa da ia edozein lan historikotan, eta erronka hauek gainditzea ezinbestekoa da iturriari ahalik eta etekinik handiena atera nahi bazaio.

Ikerketaren emaitzetatik, honako hauek dira alderdi azpimarragarrienetako batzuk: hasteko, emakume eta gizonen arte proportzioa, gizonek aise gainditzen baitute emakumeen kopurua (%87-%13). Honekin lotuta, egoera zibila eta alfabetatzea ditugu, beste bi alderdi non gizon eta emakumeen arteko aldea handia den. Egoera zibilaren inguruan, gizonen kasuan ezkondu eta ezkongabeen ehunekoa berdina da, %49, eta alargunek soilik %2a osatzen dute. Emakumeen kasuan, berriz, %61 ezkonduak daude, %23a ezkongabe eta %16 alargun. Alfabetatzeari dagokionez, soilik emakumeen %48ak irakurri eta idatzi zezakeen, gizonen kasuak ehuneko hori %99raino iristen delarik. Hau da, emakumeek espetxeko biztanleriaren %13a ziren arren, analfabetismoaren %90 osatzen zuten. Aipatzekoa den beste alderdi bat, presoen jatorriarekin zerikusia duena da, preso gehienak beste probintzia batzuetatik datozeelako. Hori, aurretik aipatu den bezala, eskura dugun informazioa nolabait mugatzen du, alde batetik FDMHN-ak Nafarroan eta Nafarroan bizi zirenei gertatutako errepresioa biltzen baitu eta, bestalde, presoak mugitzean informazioa galtzea errazagoa delako.

Txostenean zehar aipatu den moduan, ikerketan jarraitzeko beharra agerian dago, hala nola, errepresaliatuen militantzia taldeen edo lanbideen inguruan. Informazio hau jada dago bildua datu-basean baina, hala ere, beharrezkoa izango litzateke informazio horren sailkapen zehatzago bat egitea. Erronka handia den arren, arazo horiei aurre egiteko proposamenak abian jartzekoak dira.

Oro har, lan hau lehen ikerketa-esperientzia baten sintesia da, eta, aldi berean, Iruñeko Espetxe Probintzialeko une jakin baten analisia aurkezten du, 1940ko biztanleria penalaren argazki bat balitz bezala. Hau, urte puntual baten inguruko lana da, serie baten barruan ulertu beharko litzatekeena denboran zehar emandako joera orokorrak hobeto ulertzeko. Hala ere, ikerketa honek azterketa kuantitatiboaz gain, arrazoi politikoengatik espetxeratu zituztenen multzoa nolakoa zen ulertzeko aukera ematen digu, eta, nahiz eta oraindik ezinezkoa den norbanako bakoitzaren historia kontatzea, errepresio mota hori jasan zutenen oroimena gordetzeko aurrerapauso bat da.

## **7. BIBLIOGRAFIA**

Espainiako Estatistika Urtekaria (1943). Existencia en 1.º de enero [Datu basea]. <https://www.ine.es/inebaseweb/treeNavigation.do?tn=161311&tns=160602#160602>

Francés Lecumberri, P. (2015). El encierro y el destino de las mujeres presas en Navarra. *Iura Vasconiae*, 12/2015, 441-498.

García Funes, J. C. (2022). *Desafectos: batallones de trabajo forzado en el franquismo*. Comares.

Gómez Bravo, G. (2006). El desarrollo penitenciario en el primer franquismo (1939-1945). *HISPANIA NOVA. Revista de Historia Contemporánea*, 6.

Gómez Bravo, G. (2008). La política penitenciaria del franquismo y la consolidación del Nuevo Estado. *Anuario de Derecho Penal y Ciencias Penales*, 61(1), 165-198.

Gómez Bravo, G. eta Marco Caballero, J. (2011). *La obra del miedo. Violencia y sociedad en la España franquista 1936-1950*. Península.

Herrero Hernan, H. (2020). *Entre rejas. Diccionario biográfico Fuerte de San Cristóbal / Ezkaba. Navarra, 1934-1945*. Pamiela.

Hernández Holgado, F. (2013). *Cárceles de mujeres del novecientos: una práctica de siglos*. Pedro Oliver Olmo (Koord.), *El siglo de los castigos. Prisión y formas carcelarias en la España del siglo XX (145-187)*. Anthropos.

Majuelo Gil, E., Mendiola Gonzalo, F., Garmendia Amutxastegi, G., Piérola Narvarte, G., García Funes, J. C., Yaniz Berrio, E., Perez Ibarrola, N., Barrenechea Tartas, E., Rodríguez Martínez, I., Sesma Redín, R., eta Bustince Sola, H. (2019). *Gertakari errepresiboak kuantifikatzea: Nafarroako Memoria Historikoaren Dokumentu Funtsaren azalpena eta erronkak. Nafarroako Memoria Historikoaren Dokumentu Funtsa, memoriapaper(ak), 5*.

Majuelo Gil, E., Mendiola Gonzalo, F., Pérez Ibarrola, N., Oviedo Silva, D., Aldave Monreal, E., Piérola Narvarte, G., García Funes, J. C., Satrustegui Andres, I., Rodríguez Villar, I., eta Indurain Ibero, A. (2021). *Víctimas mortales de la represión en Navarra durante la guerra civil y el primer franquismo (1936-1948)*. *Fondo Documental de la Memoria Histórica en Navarra, memoriapaper(ak), 10*.

Mikelarena, F. (2015). *Sin piedad. Limpieza política en Navarra, 1936*. Pamiela.

García Funes, J. C., Mendiola Gonzalo, F., Majuelo Gil, E., Pérez Ibarrola, N., Aldave Monreal, E., Oviedo Silva, D., Piérola Narvarte, G., Satrustegui Andres, I. (2021). *Informe sobre centros de detención y espacios de cautividad en Pamplona, 1936-1945*. Nafarroako Memoriaren Institutuak eskatuta. <https://oroibidea.es/cautividad/es/report>

Oliver Olmo, P. (2003). *Pena de muerte y procesos de criminalización (Navarra, siglos XVII-XX)*. *Historia Contemporánea* 26, 269-292.

Oliver Olmo, P. (2013). *El siglo de los castigos. Prisión y formas carcelarias en la España del siglo XX*. Anthropos.

Rodríguez Teijeiro, D. (2007). *Configuración y evolución del sistema penitenciario franquista (1936-1945)*. *Hispania Nova: Revista de Historia Contemporánea*, 7.

## AURKIBIDEAK

1. Irdia. Iruñeko Espetxe Probintzialeko biztanleria penal orokorra, preso politikoak eta arruntak bereizi gabe (1932-1940). .....	17
2. Irdia. Iruñeko Espetxe Probintzialeko biztanleria penal orokorra, preso politikoak eta arruntak bereizita (1940). .....	20
3. Irdia. Iruñeko Espetxe Probintzialeko preso politikoak Nafarroan espetxeratuak izandako aldi kopuruaren arabera sailkatuak, FDMHN-ak bildutako informazioaren arabera (1940). .....	21
4. Irdia. Iruñeko Espetxe Probintzialeko preso politikoak sexuaren arabera (1940). .....	22
5. Irdia. Iruñeko Espetxe Probintzialeko preso politikoek biztanleria-piramidea (1940). .....	23
6. Irdia. Iruñeko Espetxe Probintzialeko preso politikoak probintziaren arabera (1940). .....	24
7. Irdia. Iruñeko Espetxe Probintzialeko preso politikoek alfabetatzea (irakurtzen eta idazten dakiten ala ez) sexuaren arabera (1940). .....	25
8. Irdia. Iruñeko Espetxe Probintzialeko preso politiko analfabetoak sexuaren arabera (1940). .....	26
1. Taula. Iruñeko Espetxe Probintzialeko preso politikoek artean gehien errepikatzen diren lanbideak (1940). .....	27
2. Taula. Iruñeko Espetxe Probintzialeko preso politikoek egoera zibila (1940). .....	28
3. Taula. Iruñeko Espetxe Probintzialeko preso politikoek jasandako beste errepresio motak eta hauek zenbat aldiz errepikatzen diren (1940). .....	30

## **ERANSKINA: LANBIDEEN ZERRENDA**

1. Labrador/Nekazari: 81
2. Sus labores/Etxeko lanak: 70
3. Carabinero/Karabinero: 59
4. Jornalero/Jornalari: 55
5. Albañil/Igeltsero: 25
6. Ferroviario/Burdinbideko langile: 19
7. Chófer/Auto gidari: 18
8. Mecánico/Mekanikari: 14
9. Militar/Militarra: 12
10. Dependiente/saltzaile: 9
11. Moldeador/Moldatzaile: 8
12. Maestro/Irakasle: 8
13. Comerciante/Saltzaile: 7
14. Carpintero / Zurgin: 7
15. Empleado/Langile: 7
16. Panadero/Okin: 6
17. Aserrador/Zerratzaile: 6
18. Fontanero/Iturgin: 5
19. Fundidor/Urtzaile: 5
20. Camarero/Zerbitzari: 4
21. Minero/Meatzari: 4
22. Ebanista/Ebanista: 4
23. Forjador/Forjatzaile: 4
24. Ajustador/Doitzaile: 4
25. Zapatero/Zapatari: 3
26. Electricista/Argiketari: 3
27. Estudiante/Ikasle: 3
28. Pintor/Margolari: 3
29. Marino/Itsas-gizon: 3
30. Tejedor/Ehule: 3
31. Campesino/Nekazari: 3
32. Metalúrgico/Metalurgiko: 3
33. Modista/Jostun: 3
34. Mozo: 3
35. Cartero/Postari: 3
36. Herrero/Errementari: 3
37. Jardínero/Lorezain: 3
38. Cantero/Hargin: 2
39. Abogado/Abokatu: 2
40. Peón/Peoi: 2
41. Tratante/Tratulari: 2
42. Impresor/Inprimatzaile: 2
43. Obrero/Langile: 2
44. Vaquero/Unai: 2
45. Litógrafo/Litografoa: 2
46. Mecnógrafo/Mekanografo: 2
47. Curtidor/Larrugin: 2
48. Carretero/Gurdizain: 2
49. Contable/Kontulari: 2
50. Vidriero/Beiragile: 2
51. Músico/Musikari: 2
52. Vendedor/Saltzaile: 2
53. Tornero/Tornulari: 2
54. Auxiliar de Farmacia/Farmazia laguntzaile: 2
55. Cesante: 2
56. Peluquero/Ile-apaintzaile: 2
57. Cerrajero/Sarrailagile: 2
58. Pelotari/Pilotari: 2
59. Ceramista/Zeramikari: 2
60. Hortelano/Baratzezain: 2

- |  |                                    |
|--|------------------------------------|
| 61. Casquero: 1                                | 92. Encargado/Arduradun: 1         |
| 62. Alpargatero/Espartingile: 1                | 93. Carrero/Gurdizain: 1           |
| 63. Telefonista/Telefonista: 1                 | 94. Sastre/Jostun: 1               |
| 64. Guarnicionero/Uhalgile: 1                  | 95. Carnicero/Harakin: 1           |
| 65. Portero/Atezain: 1                         | 96. Empleado/Enplegatu: 1          |
| 66. Guardia de Seguridad/Segurtasun Guardia: 1 | 97. Telegrafista/Telegrafista: 1   |
| 67. Pescador/Arrantzale: 1                     | 98. Sastra/Jostun: 1               |
| 68. Tranviario/Tranbia gidari: 1               | 99. Industrial/Industrialari: 1    |
| 69. Barbero/Bizargin: 1                        | 100. Sargento/Sarjentu: 1          |
| 70. Funcionario/Funtzionari: 1                 | 101. Barnizador/Barnizadore: 1     |
| 71. Hilador/Irule: 1                           | 102. Remachador/Errematxatzaile: 1 |
| 72. Fotógrafo/Argazkilari: 1                   | 103. Tejero/Teilagin: 1            |
| 73. Maquinista / Makinari: 1                   | 104. Profesor/Irakasle: 1          |
| 74. Torero/Toreatzaile : 1                     | 105. Arador/Goldelari: 1           |
| 75. Lavandera/Ohial-garbitzaile: 1             | 106. Costurera/Jostun: 1           |
| 76. Soldador/Soldadore: 1                      | 107. Almadiero/Amadizain: 1        |
| 77. Joyero/Bitxiepile: 1                       | 108. Médico/Sendagile: 1           |
| 78. Fogonero/Surgin: 1                         | 109. Hojalatero/Latorrigile: 1     |
| 79. Barrendero/Kale garbitzaile: 1             | 110. Practicante/Praktikante: 1    |
| 80. Soldado/Soldadu: 1                         | 111. Cocinero/Sukaldari: 1         |
| 81. Arriero/Mandazain: 1                       | 112. Cobrador/Kobratzaile: 1       |
| 82. Ferrista?: 1                               |                                    |
| 83. Hornero/Labezain: 1                        |                                    |
| 84. Farmacéutico/Farmazialari: 1               |                                    |
| 85. Paseador: 1                                |                                    |
| 86. Molinero/Errotari: 1                       |                                    |
| 87. Planchadora: 1                             |                                    |
| 88. Escribiente/Eskribau: 1                    |                                    |
| 89. Tipógrafo/Tipografo: 1                     |                                    |
| 90. Encuadernador/Koadernatzaile: 1            |                                    |
| 91. Pinche de cocina: 1                        |                                    |